



## BIZILEKU-BAIMENAK: BILAKAERA ETA EGOERA GAUR EGUN

*Begirada honetan, bizileku-baimenei buruzko datuak aztertuko ditugu. Azpimarratu nahi dugu zein izan den orain arteko bilakaera eta zer fase bereiz daitezkeen, batetik, eta bestetik, egoera zein den gaur egun eta nolakoa izan daitekeen etorkizunean, biztanle atzerritarrek integratzeko prozesuan guztiz gai oinarritzko eta garrantzitsua baita hau, bizileku-baimena izatea edo ez izatea, alegia. Bestalde, 2008ko apirileko 21. begirada eguneratuko dugu, hein batean behintzat, orduko hartan ere bizileku-baimenak eta Gizarte Segurantzako afiliazioak azertu baikenituen.*

### 1. Bizileku-baimenen bilakaera

1. taulan, jatorriz atzerrikoak izan eta EAEn erroldatuta dauden biztanleen kopurua ageri da, bai eta bizileku-baimenen kopurua ere. Badakigu bi erregistro horiek erlaziozateak zer-nolako ahulezia metodologikoak dituen, baina, hala eta guztiz ere, erlazio hori egitea interesgarria iruditzen zaigu, aukera ematen baitu balizko *erregularizazio-tasa* bat kalkulatzeko (bizileku-baimena duten pertsonen eta erroldatuta dauden arteko erlazioa, alegia), eta beraz, jakiteko, hein batean, zenbat pertsona dauden administrazio-egoera irregularran.

Erroldatuta dauden biztanle atzerritarren bilakaerari dagokionez, ikusten da 2012ra arte kopuruak urtez urte gora egin zuela, etengabe. 2013tik aurrera, biztanle atzerritarren kopurua txikituz joan zen, bi arrazoiengatik, batik bat: urte horietan nazionalizazio-prozesua areagotu egin zelako, eta atzeritik etorritakoen migrazio-fluxuak gutxitu egin zirelako. 2017an, aldaketa ageri da, eta krisi-egoera honetan aurre-

nekoz handitu egin da berriro biztanle atzerritarren kopurua: 139.425 pertsonatik 142.391 pertsonara.

Bizileku-baimenei dagokionez, goranzko joerak egonkorrago iraun du erroldatutakoen kopuruak baino: baimenen kopurua 2014an eta 2015ean baizik ez zen gutxitu (eta pixkatxo bat bakarrik, gainera), eta handituz joan da berriro 2016tik aurrera.

Bi erregistroek bilakaera hori izanda, elkarrengana hurbilduz joan dira urtez urte, eta, horrenbestez, erregularizazio-tasa handituz joan da denborak aurrera egin ahala, gaur egungo % 88,1era iritsi arte. Alderantziz esanda, pentsa daiteke gaur egun EAEn bizi diren biztanle atzerritarren % 11,9k bizileku-baimenik ez duela: 16.912 pertsonak, zehazki. Ez dezagun ahaztu, dena den, kopuru horiek gutxi gorabeherako kalkulak baino ez direla, eta hala interpretatu behar direla.

1. taula. EAEn erroldatuta dauden biztanle atzerritarren kopurua eta bizileku-baimena dutenena. Bilakaera, 1998-2017

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Erroldatuak	15.198	16.793	21.140	27.438	38.408	49.231	59.166	72.894	85.542	98.524
Baimena dutenak	15.647	16.995	18.622	18.822	19.515	24.201	28.600	37.150	57.395	64.228
Erregularizazio-tasa	103,0	101,2	88,1	68,6	50,8	49,2	48,3	51,0	67,1	65,2

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Erroldatuak	117.337	132.865	139.369	145.256	151.894	148.877	141.316	137.816	139.425	142.392
Baimena dutenak	83.875	96.635	106.658	110.063	119.984	123.484	122.994	122.076	124.064	125.480
Erregularizazio-tasa	71,5	72,7	76,5	75,8	79,0	82,9	87,0	88,6	89,0	88,1

1. grafikoa. Erregularizazio-tasa EAEn. Bilakaera, 1998-2017



Iturria: EIN eta MEYSS.

1. grafikoa ikus daitekeen bezala, oraingo egoera oso bestelakoa da aurreko urteetakoaren aldean, erregularizazio-tasa % 50etik behera ere egon baita (2003an eta 2004an). Grafiko horretan, zenbait une edo fase bereiz daitezke erregularizazio-tasaren bilakaeran:

**1. 1998tik 2000ra bitartean.** Urte horietan, EAEko biztanle atzeritarren kopurua txiki samarra zen. Erregularizazioa, aldiz, oso handia izan zen, eta gertatu ere gertatu zen bizileku-baimenen kopurua errolatutako pertsonen kopurua baino handiagoa izatea. Desoreka estatistiko hori litekeena da erregistroetako beraietako desoreken ondorio izatea, eta izango du zerikusirik, ziur asko, orduan biztanle atzeritarrentzat erroladak orain baino garrantzi gutxiago izateak eta, horregatik, EAEn bizi izanagatik ere zenbait errolatzeko eskaera egin ez izanak.

**2. 2001etik 2005era bitartean.** Errolatutako pertsonen kopurua izugarri handitu zen aldi horretan, migrazio-fluxuak handitu egin zirelako. Bizileku-baimenen kopurua ez zen hein berean handitu, ordea, eta hala, erregularizazio-tasa % 50 ingurukoa da. Argazki horrek erakusten digunez, beraz, administrazio-egoera irregularra pisu handikoa zen EAEn bizi ziren biztanle atzeritarren kolektiboan. Egoera hori estu lotuta dago Aznarren bigarren agintaldiko immigrazio-politikarekin, eta hurrengo urtean hasi zen konpontzen, Zapaterok ekindako erregularizazioarekin.

**3. 2006tik 2016ra bitartean.** Hirugarren fase horretan, erregularizazio-tasak pitinka-pitinka gora egin zuen, ia % 90ekoa izatera iristeraino. Dena den, fase honen barruan ere gutxienez bi aldi bereiz daitezke.

- Aurrenekoan, 2006tik 2012ra bitartekoan, errolatutako pertsonen kopuruak gorantz jarraitu zuen, baina ez baimenen kopuruak bezainbeste, azken hori nabarmen handitu baitzen 2005etik 2006ra bitartean egoera irregularrean zeuden pertsonen ezohiko erregularizazioagatik (% 51tik % 67,1era igaro zen), biztanle bulgariarrak eta nagusiki errumaniarrak Europar Batasunean sartu zirelako 2007an, eta gizartearen errotzearen bidez bizileku-baimena lortzeagatik.


- Bigarren aldian ere, 2013tik 2016ra bitartekoan, erregularizazio-tasak gorantz jarraitu zuen, baina beste arrazoi batzuegatik, nagusiki: nazionalizazio-prozesuegatik eta krisiaren ondorioz etorritako atzeritarren kopurua txikiagoa izan zelako. Hala, errolatutako pertsonen kopurua txikitu egin zen, eta, horrenbestez, nahiz eta baimenen kopurua aurreko urteetan bezainbeste ez igo, erregularizazio-tasak handitzen jarraitu zuen, gaur egungo kopuruetara iritsi arte. 2017an, hainbat urtean aurreneko aldiz, erregularizazio-tasak behera egin du berriro: % 89 zen 2016an, eta % 88,1 da 2017an. Ikusteko dago joera horrek berdin jarraitzen duen datozen urteotan, atzerriko biztanleen fluxuak berriro ere handiak izatea dakarren hedapen-aldi berri baten ondorioz; halaxe izan zen aurreko azken bi Begiradetan.

Bizileku-baimenen bilakaera aztertzen ari garen honetan, interesgarria da aztertzea, halaber, zer-nolako garrantzia edo pisua duen bizileku-baimenen barruan gaur egun dauden bi erregimenetako bakoitzak:

- erregimen orokorrak, eta
- Europar Batasunaren barruko zirkulazio askeak (Europar Batasuneko herritarrei dagokie, bai eta erki-degokoak izan ez baina EBko herritar diren pertsonen senideei ere).

2. grafikoa ikusten denez, 2004an erregimen bateko baimenen kopurua eta beste erregimenekoena oso antzekoak ziren: erregimen orokorrean % 49,8, eta EBko zirkulazio askekoan % 50,2. Hurrengo urteetan, erregimen orokorra handitu egin zen, ia % 60 izateraino (% 59,7), eta gero gutxituz joan zen berriro, 2017an atzera ere oreka-egoeran jarri arte (% 51,5 eta % 48,5). Gutxitze horren arrazoia, hein batean, nazionalizazio-prozesua izan zen, nagusiki erki-degokoak ez ziren biztanleen kolektiboan gertatua eta, batik bat, latinoamerikarrean. Horri dagokionez, ez genuke ahaztu behar Espainiako nazionalitatea lortzea askoz garrantzitsuagoa dela erkidegokoak ez direnentzat Europar Batasunekoak direnentzat baino, eta, horregatik, maizago gertatu dela aurrenekoek atzeritar estatusa galtzea (eta, beraz, bizileku-baimena ere bai) bigarrenek baino.

2. grafikoa. Bizileku-baimenak EAEn, erregimenaren arabera. Bilakaera, 2004-2017



Iturria: MEYSS.

## 2. Gaur egungo egoera

Espainiako estatu osoko datuei begiratuz gero, ia autonomia-erkidego guztietan gertatzen den zerbait da baimenen kopurua nabarmen handiagoa izatea erroldatuta dauden biztanle atzerritarren kopurua baino. Hala, erregularizazio-tasa % 100etik gorakoa da ia kasu guztietan, autonomia-erkidego batzuetan askoz handiagoa ere bai (Extremadura, adibidez, % 145,8), eta Estatuko batezbestekoa % 111,1 da.

Ceuta alde batera utzita (hango errealitateak berezko hainbat berezitasun ditu), Euskal Autonomia Erkidegoan soilik da erregularizazio-tasa % 100 baino txikiagoa; zehazki, lehen esan bezala, % 88,1koa da. Datu horiek, berriro ere, bi erregistroen arteko desoreka adierazten dute, eta bestelako egoera bereziak ere bai; adibidez, bizileku-baimendun gisa erregistratuta jarraitzea, nahiz eta Espainiako nazionalitatea jada lortua izan, edota nahiz eta erroldan baja emanda egon, arrazoi bat edo besterengatik (kanpora joatea, hiltzea, etab.).

Edonola ere, EAEko datu hori ikusita, badirudi, batetik, biztanle atzerritarrak Estatuko gainerako lekuetara baino beranduago etorri direla gurera –eta, beraz, batzuek oraindik ez dute lortu bizileku-baimena–, eta bestetik, etorkinen fluxu horiek azken urteotan Espainiako gainerako lekuetan baino konstanteagoak eta handiagoak izan direla, 65. begiradan ere ikusi genuen moduan.

Orain, azter ditzagun bizileku-baimenen barruan dauden erregimenak. Ikusten denez, EBko zirkulazio askeko erregimenean 60.808 pertsona daude, eta kopuru hori, lehen atalean esan dugun bezala, EAEko baimen guztien % 48,5 da. Bestalde, 60.808 pertsona horien % 79 Europar Batasuneko herritarra da, edota EFTAKoa –Europako Merkataritza Askearen Elkartea, lau herrialdek osatzen dutena (Islandia, Liechtenstein, Norvegia eta Suitza)–. %21a EBko herritarren senide da, baina hirugarren herrialderen batekoa.

2. taula. Biztanle atzerritarren kopurua eta bizileku-baimena dutenena Espainian, autonomia-erkidegoaren arabera. 2017

	Errolda	Baimena	Erregularizazio-tasa
Espainia	4.549.858	5.053.887	111,1
Andaluzia	599.879	711.163	118,6
Aragoi	132.134	177.697	134,5
Asturiasko Printzerria	38.798	40.844	105,3
Balear Uharteak	186.340	226.397	121,5
Kanariak	245.821	273.764	111,4
Kantabria	29.388	34.991	119,1
Gaztela eta Leon	121.536	172.621	142,0
Gaztela-Mantxa	160.815	202.999	126,2
Katalunia	1.038.455	1.104.782	106,4
Valentziako Erkidegoa	636.595	679.478	106,7
Extremadura	31.388	45.772	145,8
Galizia	86.881	89.662	103,2
Madrilgo Erkidegoa	793.513	817.909	103,1
Murtziako Eskualdea	197.737	216.259	109,4
Nafarroako Foru Erkidegoa	54.431	57.031	104,8
Euskal Autonomia Erkidegoa	142.392	125.480	88,1
Errioxa	34.765	44.018	126,6
Ceutako Hiri Autonomoa	5.643	5.410	95,9
Melillako Hiri Autonomoa	13.347	14.261	106,8

Iturria: EIN eta MEYSS.

3. taula. EBko zirkulazio askeko erregimeneko bizileku-baimenen kopurua EAEn, baimen-motaren arabera. 2017

		K	%
Guztira		60.808	100,0
EBko edo EFTAko herritarrek	Guztira	48.035	79,0
	Besteren konturako lana	3.751	6,2
	Norberaren konturako lana	729	1,2
	Bizileku ez-irabazizkoa	1.588	2,6
	Ikaslea	620	1,0
	Senidea	2.473	4,1
	Bizilekuaren arrazoia zehaztu gabea	24.993	41,1
	Bizileku iraunkorra	13.881	22,8
Erkidegoko herritarren senide, baina hirugarren herrialdeetakoak	Guztira	12.773	21,0
	Bizilekua	8.774	14,4
	Bizileku iraunkorra	3.999	6,6

Iturria: MEYSS.

4. taula. Erregimen orokorreko bizileku-baimenen kopurua EAEn, baimen-motaren arabera. 2017

			K	%
Guztira			64.672	100,0
Aldi baterako bizilekua	Bizileku ez-irabazizkoa		1.791	2,8
	Familia berrelkartzea		3.815	5,9
	Lana	Besteren kontura	9.215	14,2
		Norberaren kontura	420	0,6
		Bestelako baimenak	429	0,7
	Circunstancias excepcionales	Errotzea	2.067	3,2
		Arrazoi humanitarioak eta bestelakoak	549	0,8
Iraupen luzeko bizilekua			46.386	71,7

Iturria: MEYSS.

Ikusten denez, erregimen horren barruan zenbait baimen-mota daude, jendearen jatorriaren arabera, eta baimen-mota guztiek ez dute pisu bera. Bizilekuaren arrazoia zehaztu gabekoen baimena da ugariena, eta erregimen horretako baimen guztien % 41,1 da, eta EBko eta EFTAko herritarren baimenen % 52.

Bizileku-baimen orokorra lortzen duten biztanleek, 3. eta 4. tauletan ikus daitekeen bezala, beste mota batzuetako baimenak lortzen dituzte, ez EBko zirkulazio askeko erregimenekoek lortzen dituztenak. Edonola ere, kuantitatiboki garrantzitsuena iraupen luzekoa da; baimen guztien % 71,7 da halakoa, eta aldi baterako baimenak, berriz, mota guztietakoak kontuan hartuta, % 28,3 baino ez dira.

Kontuan hartuta erregimen orokorraren barruan iraupen luzeko baimenen ehunekoa % 30,2koa izan zela 2009an, % 48,8koa 2012an eta % 62,5koa 2015ean, ondoriozta dezakegu joera etenik gabe goranzkoa izan dela eta administrazio-egonkortasuna hobetuz joan dela azken urteotan Europako Erkidegoaz kanpoko kolektiboarentzat, nabarmen; horixe adierazten digu iraupen luzeko baimenak % 71,7 izateak EAEn 2017an.

Azkenik, azter dezagun EAEko erregularizazio-tasa, nazionalitatearen arabera. 5. taulan ikus daitekeen bezala, aldeak handiak dira aldagai horri begiratuta, jatorria zein zona den kontuan hartuz gero, nagusiki. Hala, Europar Batasunaren barruko nazionalitate gehienak % 100etik gora daude;

adibidez, Errumania (% 131,9), Portugal (% 163) eta Italia (% 133,2). Erkidegotik kanpoko nazionalitateak ere badira multzo horretan; duela urte batzuk etorriak dira kolektibo horiek, eta fluxuak gutxitu egin dira denboraren joanean, hala nola Ekuador (% 109,8) eta Txina (% 105).

Nazionalitate horien kontrako aldean daudenak erkidegotik kanpokoak dira denak, gehienak azken urteotan etorriak, eta, beraz, ez dute oraindik astirik izan modu masiboan bizileku-baimena lortzeko, gizartean errotzearen bidez, nagusiki, herrialdean modu irregularrean gutxienez hiru urte egon behar baita horretarako. Nazionalitate horien artean azpimarratzekoak dira Nikaragua (% 49,5), Paraguai (% 62,5), Nigeria (% 42,5), Honduras (% 45,9) eta Venezuela (% 51,9).

Lehen ere esan dugun bezala, erregularizazio-tasan eragin handia du egonaldiaren iraupenak EAEn nahiz Estatuan. Hala, biztanle atzerritarren artean nahiz Europako Erkidegoaz kanpoko nazionalitatea dutenen artean, aspaldien etorri zirenek dute erregularizazio-tasa handiena, eta duela gutxi etorritakoek, berriz, tasa txikiagoa dute, baina denborak aurrera egin ahala, handitu egiten da. Erregularizazio-maila horretatik bi alderdi nabarmendu ditzakegu: 1) zer nazionalitate diren oraintsuen etorriak, eta, batez ere, funtsean, 2) zer immigrazio-eredu ari den finkatzen. Ereduetako bat, zalantzarik gabe, etorri berri diren Erdialdeko Amerikako nazionalitateak dira; immigrazio oso feminizatua ari dira finkatzen, oso errotua EAEko gizartean premietan.

5. taula. Biztanle atzerritarren kopurua eta bizileku-baimena dutenena EAEen, nazionalitatearen arabera. 2017

	Errolda	Baimenak	Erregularizazio-tasa
Guztira	142.392	125.480	88,1
Maroko	20.463	15.279	74,7
Errumania	17.819	23.511	131,9
Nikaragua	6.763	3.349	49,5
Bolivia	6.684	5.406	80,9
Portugal	6.301	10.270	163,0
Kolonbia	6.238	4.821	77,3
Txina	5.528	5.804	105,0
Paraguai	5.276	3.282	62,2
Aljeria	5.026	3.614	71,9
Pakistan	5.025	3.564	70,9
Nigeria	4.401	1.870	42,5
Brasil	4.259	3.030	71,1
Senegal	4.121	3.015	73,2
Honduras	3.793	1.740	45,9
Ekuador	2.356	2.587	109,8
Italia	2.330	3.104	133,2
Ukraina	2.244	1.666	74,2
Venezuela	2.219	1.152	51,9
Peru	1.833	1.662	90,7
Frantzia	1.830	2.379	130,0
Argentina	1.735	1.376	79,3
Dominikar Errepublika	1.705	1.362	79,9
Kuba	1.498	1.307	87,2
Erresuma Batua	1.469	1.918	130,6
Alemania	1.140	1.592	139,6
Bulgaria	1.016	1.420	139,8
Kamerun	881	576	65,4
Ameriketako Estatu Batuak	881	724	82,2
Txile	857	542	63,2
Ghana	850	641	75,4
Errusia	827	705	85,2
Ekuatore Ginea	822	457	55,6
Mexiko	800	573	71,6
Mauritania	785	557	71,0
Georgia	747	452	60,5
Mali	744	682	91,7
Filipinak	615	588	95,6
Polonia	601	1.063	176,9
Moldavia	533	432	81,1
Nepal	432	225	52,1
Ginea Bissau	423	177	41,8
Ginea	416	314	75,5
Gainerakoak	6.582	6.181	93,9

Iturria: EIN eta MEYSS.

Gerta daiteke, halaber, zenbait nazionalitatearen kasuan, finkatu samar zegoen *stock* bat oraintsuko fluxuekin *nahastea*, eta, hala, tarteko egoerak sortzea (kopuruak txikitzea, alegia), azken fluxu horien ondorioz. Horren adibide da, bestekak beste, Kolonbia. EAEen oso errotuta zegoen nazionalitate hori, nagusiki milurtekoko lehen urteetan iritsia. Hala, 2013an % 129,2ko erregularizazio-tasa zuen. 2015ean eta 2016an, ordea, herrialde horretako fluxuak berriro indartu ziren, eta Kolonbiatik immigratzaile berriak etortzea eragin

zuen horrek. Horrenbestez, jatorriz Kolonbiakoak diren biztanleen erregularizazio-tasa izugarri txikitu da, eta % 77,3 da gaur egun. Kolonbia oso eredu interesgarria da, Erdialdeko Amerikako herrialdeen dinamika feminizatzailea indartzen duelako, berriro fluxuak sortzen ditu, hasierako biztanle atzerritarren nazionalizazio-maila handiena kolonbiarrena da, baina erregularizazio-tasa txikitu egiten zaio, etorri berrien ondorioz, oraindik nazionalizatu ez direlako.

### 3. Ondorio eta gogoeta batzuk

67. begirada honetan, EAEn bizileku-baimena duten biztanle atzerritarren ezaugarri nagusiak aztertu ditugu. Datu horietatik zenbait ondorio orokor atera ditzakegu, eta gogoeta batzuk egin, etorkizunera begira:

- Azpimarratu beharreko ideietan lehena hau da: gaur egun, EAEn –eta Espainiako estatuan– bizi diren biztanle atzerritarren irregulartasun-maila txikia da, eta nabarmen txikiagoa oparoaldi ekonomikoko garaian izandakoa baino.
- Bestalde, bizileku-baimenen kalitateari dagokionez, nabarmen hobetu da egoera, handitu egin baita iraupen luzeko baimenen kopurua; gehien-gehienak halakoak dira. Baimen-mota horri nazionalizazioak gehituz gero, gaur egungo egoeraren argazkian egonkortasun administratibo eta legala da nagusi; batik bat, EAEn bizitzen denbora gehien daramatenentzat, beteranoentzat.
- EAEk du Estatuko erregularizazio-tasa txikiena, bi arrazoiengatik, hein handi batean: Europako Erkidegotik kanpoko biztanleen pisua oso handia delako, eta biztanle atzerritarrek, beranduago etortzeaz gain, azken urteotan gehiago etorri direlako.
- Azkenik, nabarmentzekoak dira bizileku-baimen motaren arabera ikusten diren aldeak: Europar Batasuneko herrialdeetatik etorritakoen artean *erregulartasun-egoera erabatekoa* da, eta erkidegotik kanpokoekin artean, berriz, alde handiak daude, baita % 50etik beherako erregularizazio-tasak ere.
- Laburbilduz, egonkortasun administratibo eta legal handi hori aukera bikaina da jatorriz atzerritarrek diren immigrazioaren kolektiboa integra dadin, nahiz eta hein handi batean horren arrazoia krisiaren ondorioz fluxuak moteltzea eta oparotasun-garaian etorritakoen *stock* handia diren, baina baita haiek hemen irautea ere.
- Hain zuzen, gaur egungo egoeran, adierazle makroekonomikoak hobetzen eta krisi osteko egoera finkatzen ari diren honetan, ez litzateke harritzekoa epe laburrean erregularizazio-tasak behera egitea, jatorrizko herrialdeetatik etorritakoen fluxuak handitzearen ondorioz. Ez dirudi erregularizazio-tasa berriro ere 2001etik 2005era bitarteko mailara irits daitekeenik, baina pentsatzekoa da datozen urteotan txikitu egingo dela. Horri dagokionez, erregularizazio-tasa azken urteotan aurreneko aldiz txikitu egin da 2017an, EAEko egoera ekonomikoa hobetu eta immigrazio-fluxuak handitu egin direlako.
- Beste modu batera esanda, eta paradoxikoa eta senak dioenaren aurkakoa badirudi ere, *irregulartasunaren hazkunde* zuzenki *proportzionala da herrialde hartzaileko dinamismo ekonomikoarekiko: zenbat eta dinamismo handiagoa, orduan eta irregulartasun gehiago, eta alderantziz. Beraz, gaur-gaurkoz, irregulartasun-tasa handiagotzen ari izateak zeharka adierazten digu EAEko ekonomia sasoi oneko dagoela.*

asteroko berri-sorta    newsletter semanal

# ikusberri

Immigrazioa hedabideetan  
La inmigración en los medios

**Harpidetu!**    **¡Suscríbete!**

Immigrazioa, errefuxiatuak, aniztasuna, etab. interesatzen zaizkizu?

Gai hauei inguruko berri garrantzitsuenak biltzen dituen astekaria prestatzen dugu Ikuspegin.

Ostiralero gure berri-sorta jasoko duzu zure emaillean zuzen-zuzenean. Harpidetu zaitetz!

Berriak egunero kontsultatzeko:  
**ikusberri.ikuspegi.eus**